

EUSKARA ARABAN

Berba-aurrekoa

Euskal kultur alorrean irakasgarri dan liburuxka bat irakurri dot oraintsu, eta Arabako euskerak mendetan zehar izan dauan ibilbidea argitzen dausku berak, handi-handika, behintzat.

Beronen izenburua hauxe: “Euskera Araban / El euskara en Alava”

Berbakuntza bitan dator: euskaraz eta gaztelaniaz.

Beraren egilea: Joseba Intxausti. Eta argitaratzailea: “Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia” (Vitoria/Gasteiz, 1994).

Lan honetara dakardazan hainbat xehetasun eta argibide liburuxka honexetik hartzen dodaz, orrialdea aitatz eta neure aldetik zerbait iruzkindurik eta osoturik

Irakurle euskaltzaleari guztiz ondo letorkiokela deritxat liburu hau oso-osorik ber-berak irakurtzea, Arabako euskeraren eta euskaldungoaren barri, laburpen gisa, jakin gura izango baleu.

Araba lurralde “historikoa” deritxanetariko bat da giza-izaera berezi baten kokagunea dalako.

“Topaleku irekia dela gizaldietan” dirausku Intxausti jaunak, eta kultura eta hizkuntza dala eta, *“kanpoko haizeetara oso zabalik aurkitu da beti Arabako zenbait eskualde. Alde honetatik Nafarroako Erriberaren antzeko historia da Arabarena ere, begoaldean batik-bat”* (1. orr.)

Arabako euskera dot jardungai eta aztergai idazkun honetan, ondorenez.

Herrialde euskalduna da, batetik, - *“Arabak bere lurraldean, betidanik, esan obi dan bezela, bizirik izan du euskara”* — eta, gainera, euskeraren esparruan gora-behera eta joan-etorri haundiko jazoerak izan dira bertan, bestetik. Horregaitik edozein euskalzalerentzat gogoz eta arretaz ikastekoa eta jakitekoa izan behar litzateke, nik uste, gure hizkuntza dala eta, Arabak izan dauan garrantzia.

Antzina-antzinatik gure egunotara arteko ikus-bitarte estu/medar bat agerrazotea nahi izango neuke, irakurlearentzat jakinbide eta beronen euskal barrutiarentzat aberasbide izan daiten.

Euskera antzinateko Araban

Zein bidetatik jakin eta daikegu Arabako herrialdea antzina-antzina euskalduna izan zana?

Iturri bat, oso kontutan hartzekoa, lekuizenak dira.

“Kasu honetan, batez ere Lz de Gerenuk egin du tokian tokiko izen handi eta txikarren bilaketa-lana, dozenaka mila izen geografiko eta historiko metatzeraino” dinosku Joseba Intrxaustik (2 orr.). *“Eta, harekin batera, beste hainbatek osotu izan du zeregin hori Arabako lurretan”* (2 orri.). Hurrengo, arlo honetan jardun izan dabenen izen batzuk datoz.

Intxausti jaunak aitatzen ez dauan arren — eta harritu ere harritzen naz — urte batzuk dirala, sekulako lan txalogarria egin eban eremu beratan FEDERICO BARRENENGOA amurrio-

ar euskaltzainak Aiarako toki-izenak “*Onomástica de la Tierra de Ayala*” deritxan bere liburuan batu zituanean.

Jaun beronek idazlan irakurgarri bat plazaratu eban “El Mundo del País Vasco” izeneko egunkarian (maiatza 20, 1995) Aiara lurraldeko euskeraren gaurko egoerari buruz. Idazlan hau euskerara itzuli eban Agirregabiriak, eta ZER aldizkarian argitaratu (iraila, 1995).

Irakurkizun honetan hauxe dino Federico Barrenengoak: “*Aitatu dodan nire liburuan, 10.773 toki-izen batu nebazan antzinako Aiara Lurraldekoak, eta ortik 8.000 geldituko dira, gutxi gora-beera, aldakiak ken badagiguz*”.

Euskaltzaindiak lan garrantzitsu hau omendu gurarik, beronen egilea euskaltzain urgazle izendatu eban.

=====

“*Mendi eta haranetan, herrixka eta xokoetan, euskal izenek ez dute galdu beren jatorriaren usain gozoa*” irakurten dogu Intxaustiren liburuan.

Adibide batzuk badakarz: Iturbidea (1550), Iturburua edo Iturgaina (1708), Larratxoa (1696), Larraguibel, Larramburu... Recabarria, Ibarrecolandea, Bidaburu, Bidalucea... eta abar.-

Guzti hau dala eta — baiesten dau autore honek — “*euskara abantzi edo jaso ez duten arabarrek ere lekuizen altxor horretan egon da herrialdeko jatorrizko hizkuntza honen oroigarriarik jatorrenetako bat, izan ere, toponimia historiaren eta hizkuntz harrobi aberatsa izan baita Araban, beste nonahi bezelatsu edo gebiago*” (2. orr.)

Beste iturritxo bat be badala dinoe adituek, euskera Araban aspaldidanikoa dalakoaren lekuko dana. Hauxe: Arabarrek egin ohi daben gaztelania-mota, hau da, erdera horretan jatorriz euskerazko berbak hainbat eta hainbat nahasten dituela. Adibidez, abarra, atorra, bustina, aurzaia...

Erromarren Aginte-aldia (K.a II.m./K.o.IV. m.)

Erromatarrek Euskalerriratu baino lehenagoko urteak nahiko ilunak dira Araban, beste euskal herrialdeetan jazoten dan lez, aldi hareetako bizilagun jatorrizkoak nortzuk izan ziran benetan ez dakigu eta.

Araba, gehien-gehienik edo oso-osorik, euskalduna izan zalako eretxia gaurko jakitunen artean zabalduena da, orraitino.

Erromako Aginterriaren menpe Araba eta inguruak gertatu ziranean, *barduliar*, *karistiar*, *austrigo* eta *beroinak* izan zirala bizikide dirudi, kondairalarien ustez.

Leinu honeetatik, karistiarrak eta barduliarrak oso-osorik euskaldunak zirala baiesten dabe jakintsuek. Austrigoak be bai, neurri handi baten bederen. Beroiak, osteraz, kulturaz eta berbakuntzaz, *zeltatzat* jo beharko litzatekez, gehiengoaren eretxiz.

Erroma gure artera etorri eta gero, barriz, hemengo lurralde-etako eta inguru-etako barriak gehiagotu eta zabalagotu egingo jakuz, eta, Arabari dagokionez, areago.

Ez hori soilik. Gure berbeteagazko egoera guztiz aldatu egin zala emoten dau, besteak beste, euskerarentzat bizirik irauteko burrukaldi latza eta gogorra etorri zalako gizaldietan zehar.

Ezin daikegu ahaztu, halan be, erromarrak gure eskualde eta herrietatik igaro ziran arren, "*baina euskeraren abotsa itoaraztera iritsi gabe*", Intxausti idazleak darakuskunez, "*indoeuropear eta iberiarrekin gertatu zan*" bezala.

Mendetan zehar gerraldi bortitza eta luzea jasan behar izan eban euskerak -Arabako euskerak- erromatarren erpetatik ito bagarik urteteko!

Erromatar Aginte-aldiaren aurretik, Araba kultur eta berbakuntza ez-bardinen topaleku izan zala dinoe ikertzaileek, eta arabarrek bizikiro egin eutsela aurre kultur bide eta hizkuntza arrotzei, eurenari sendo eta tinko iraun eraginik, eta gertatuko-

aren adierazgarririk esanguratsuena euskera bera dala, baieztatzen dabe.

“Erromaren azken mendeetan (Kristo osteko II-IV) Erromatartzearen ondorio linguistikoak oso presente zeuden Arabako lurretan. Euskera zenbait lekutan desagertu ez bazen, horren arriskua ez zen urrun izan, eta zenbait bizilagunetan elebitasun eusko-latinoak aski finkatua izan behar zuan, itxuraz. Dena den, aurreko milakadako mintzaera zeltikoen hondarrak galdu ziran bitartean, euskerak funtsean eutsi egin zion bereari” (7. orr.)

Guzti honen ondorio lez, hauxe esan daikegu: euskera eta latin, biak batera, gizaldietan bizi izan zirala alkarren ondoan, auzokide eta lehiakide, bata besteagaz nahasturik, latinetik euskerara hitz piloak aldaturik.

Erdi Aroa (V-XV. mendeen artean)

Erromatarren Agintea gainbehera etorri zanean, kristautze aldia nagusitu zan mendebaldeko herrialdeetan, eta bestelako egoera honek bere arriskuak ekarri eutsazan euskerari, latintze barriaren ondorioz (8. orr.)

“Baina, gaizki ezagutzen ditugun arrazoiengatik, euskal gizartea orduantxe azaldu zan biziki indartsu (IV-VIII mendeetan), eta, honen eraginez, euskaldungoa eta euskera bera lurralde berrietara zabaldu zan, lehenik Araban, baina ez hemen bakarrik”.

“Ebrotik begoaldera lurralde zabala biztanleztatu zuten euskaldunek, eta mendeetan iraun zuen euskarak (agian X-ren aurretik) Berant Erdi Aroraino” (8. orr.)

Gertakizun harrigarria izan zan garai hareetako hau, guri guztiz ulergaitz egiten jakuna, orain arte guztizko argibiderik inok ekarri bagarik, nik dakidala.

“Arabarrek eskubartze bortitza eta zuzena izan zuten euskararen orduko hedakuntzan, jendez eta euskalkiz, eta Burgos

eta Errioxa Garaiko lurretan Arabako euskara izan zan hatikbat zabaldu zana (8. orr.)

Erdi Aroan zehar Araba gehienik euskalduna izan zala dirudi, *“euskal lurraldea atzera bilduz etorri arren”* (8. orr.).

“Baina hori dena horrela izanda ere, Erdi Aroan jaio zitzaion arabako euskarari gerora lehiakide bortitza bilakatu zen beste hizkuntza bat: gaztelania. Lehenago hizkuntza indoeuroparrak eta latina bezela, orain barneko eta etxeko auzolaguna izan zen gaztelania Araban. Alkarren lehiakide hauek, ordea, baliabide sozio-kultural desberdinetan biziko ziren ia milakada oso batean, gure egunak arte” (10. orr.).

“Euskarari lurra janez, gaztelaniak Errioxa Garaian eta Araban erakutsi zuen aurrera-indarra -eta euskararen ahuldadea- arrazoi hauetan ikusi izan da: Gaztelaren Arabarekin bateratze politikoan, noblezia arabarrak harako izan zuen jorera, Araba bezelako lurralde ireki batean harremanetarako erromantzeak ematen zuen erraztasunean, mundu ofizial eta idatzian gaztelaniari ematen zitzaion nagusitasunean, etabar. Gaztelaniaren sorterrietatik (Burgostik eta Errioxatik) hasi zen sartzen gaztelania XI. mendetik aurrera” (10. orr.)

“Erdi Aroa amaitzear zegoela, Ebrotik begoaldean ez zegoen euskaldunik, Arabako Erriberatan apenas, eta ezta mendebaldean ere. Bi hizkuntzen arteko muga Lizarratik Trebiñora ziboa Kantabriako mendikatea muga-euskarri zelako” (10. orr.).

Erdi Aroaren hurrengo

“Esan bezala, Erdi Aroan Arabako euskarak bedakuntzarena izan zuen lehenengo, eta gero, nabikoa luzaroan eutsi abal izan zien begoaldeko eskualdeei bere eskuetan. Aro Modernoan, lehenengo batean (XVI-XVII mendeetan) ez zen aldakuntza nabarmenik gertatu euskararen eremu geografikoan” (11. orr.)

XVI garren mendean italiar ibiltari bi igaro ziran Arabatik, eta bidari honeek, euskera dala eta, jakingarri batzuk itxi eus-
kuezan.

Navagiero bidelariak hauxe dirausku 1528 garren urtean: “*Gasteizen gaztelaniaz hitz egiten da, baina ulertzen dute eus-
kara, eta (Arabako) beste herri gebienetan bizkuntza hau egi-
ten da*” (11. orr.)

Venturio bidelariak, barriz, 1572 garren urtean, zerau idaz-
ten dau “*Bertan (Gasteizen) herritar arruntek “bizkaiera” edo
“euskera” hitz egiten dute (“Biscaino o Bascongado” dio be-
rak), bizkuntza zaila ikasteko, aldi berean nobleak gaztela-
niaz argitasun osoz mintzatzen diren bitartean*” (11. orr.)

Honezaz gainera, Landuchiok 1562 garren urtean garaiko
euskeratik, batez ere, euskalki “hegoaldetar” arabarretik jasota-
ko hiztegia aitatu behar da.

XVI eta XVII garren mendeetan, Gasteizeko inguru zabal ha-
retan herriak euskaldun hutsak ziran. “*Trebiño bera ere ez ze-
goen euskararen barrutitik kanpora*” (13. orr.).

Elizak berak aintzat hartzen eban herri-berbakera hau.

B. Díaz de Luco Kalagurriko gotzain arabarrak (1544-1555)
eta heronen ondorengoak nahikoa garaiz arduratu ziran (1565)
predikua euskeraz egin zeitezen.

Gasteiz inguruko herri eta auzoetan euskeraren galtzea ez
amazortzigarren gizaldian -garai haretan herritxo guztiak eus-
kaldunak ziran- eta XVI mendiaz gero, euskerak atzerakada
txikia egin ebanez, *XIX garren gizaldian gauzatu zan*, diru-
dienez. Gasteiz ondo-ondoan dagoan herritxoan, Gamarran,
adibidez, XX. mende honetan, hasieran behinik-behin, ba ei
ziran adin haundiko bizilagun zaharrak euskaraz ekienak.

Euskeraren atzerakada eta galera hau zer dala eta etorri zan
zehaztu gura izan ezker, hiru arrazoi ekarten dira: 1) Abadeen ardurabakokeria, lautadako herri txikietan euskera
galdu zalako. 2) “*Arabaren geografia irekia eta Gaztelakiko*

barreman ugariak”, eta 3) *“Garaiko eskolak zuen bizkuntzarekiko pedagogia itxuragabea”* (18. orr.).

Arabarren alderako, halan be, hau esan behar da: Amazortzigarren gizaldian hasita, arabar ikastun eta jakinzaleak euskera irakaskuntzan sartzearen aldeko agertzen dira, hau da, *“eskolan, gaztelaniaren aurretik, euskera sartzea”* eskatu eban arabar talde batek, eskabide hau egiten aintzindariak izan ziran, eta albiste hau ohoregarri da arabarrentzat.

“Hiztungoaren egokiera historiko larrietan buru-pentsalari-rik izan du Arabak bere herritarren artean. Hizkuntzaren kontzientzia eta oroimen historikoa gordetzeko beroiek eskaini duten gogoeta eta burutu duten bilketa azpimarratzekoak dira” (27. orr.).

“Zenbait arabarrek aurrera hartu zien gainerako euskaldunei bizkuntzaren modernitate-tresna ere baden euskal eskolaren eskea egitean; bestalde, Eusko Pizkundeko euskalgintzan presente egon ziran arabarrak, Araban bertan eta herrialde arteko ekintzetan” (27. orr.).

“Arabako historilarien artean ere piztu zen hizkuntzarekiko kezka” (18. orr.)

“Landazuri dugu zinezko euskaltzale bezela agertu zitzai- gun (1798), euskararen galeraz bere tristura hunkitua azal- duz: “Pérdida lamentable (Arabako euskerarena, alegia) y dig- no objeto de toda atención posible en busca de medios para conservar y aun aumentar el uso de un lenguaje que siempre ha sido característico de estas tres Provincias bascongadas” (19. orr.).

Euskara Araban gaur

Aiarako Lurraldeari gagokiozala, gorago aitaturiko Federiko Barrenengoaren idazkUNETIK zatitxo bat edo beste jasoko dot, darabilgun autu honetan argigarri izan dakiguke eta.

“Arabian euskeraren zabalkundea galerazoteko ekarri oi diran arrazoiak onangoak dira: Gaur eguneko egoerari makurtu behar gaiakozala, gure egunotan Araba erdalduna dala..., ez dala bardin illik dagoan ondarea eta gaur bizirik daukaguna, leen izan zana eta orain dana; leengo gure aurretikoek ezdaukela oraingo bizilagunei ezer ezartzeko eskubiderik, ezta galdurik dagoan berbakera batek gaurko iztunei zerbait artuarazoteko aginterik” (Zer, 1995, iraila).

Federiko Barrenengoa araiarrak honan erantzuten dautse: *“Zer da, baiña, gaur dana edo gaurko izatea? Orain dana eta daukaguna au be bada: gure aurreko araiarrak euren bizitzaldian egunero-egunero erabili ebela euskera, eta euren arteko batzuk gure egunotara arte. eta au kondaira/historia bizibizia da, ez illa. 1940-1945 inguruan nik euskaraz berba egin neban lurralde onetako azkenengo euskaldunakaz Laudioko Gardea, Lekanda, Dubiris baserrietan eta beste leku batzuetan, eta 1970 garren inguruan Baranbion bertako euskaldunak ezagutu nebazan”...*

“Gizaldi onen erdi aldera oraindiño, Okendo eta Larrazabalako baserritarrak ez eben “zeta” oguzten “ese” baiño, eta “paser” esaten eben “pacer”-en orde, “sapato” “zapato” esan bearrean, euren jatorrizko berbakuntza oraintsu galdu ebela argi erakutsirik. XIX garren gizaldian, izan be, Laudion geien-geienak euskaraz egiten eben berba, eta mende onen beradundu-beranduan euskeraz egiten ebazan otoitzak eta berbaldiak Santa Luziako santutegian, baita Baranbioko Garrastalxun be, gizaldi beronen leenengo laurenean zear”.

“1862 garrenean, Bonaparte Printzeak auxe idatzi eban: Okendojenan geienak euskeraz ebela berba, eta Okendon, Amurrion, Lezaman karlisten gerrate arte euskeraz egiten zan, 1830 urte inguruan eta beranduago. Amaren aldetiko nire aitita Luiandon elizako berbaldiak euskaraz entzunda egoan. Eta euskeratik, gazteleraz naastuta, 450 izen baiño gehiago

gelditu jakuzan Amurrio eta Lezamko bazterretan, eta neuk jaso nebazan berbok 40 garren inguruan”.

“Arabako kondairan/historian zearreko lurraldean, 1930 garren urterarte euskeraz itz egin oi zan Gorbea azpiko lurraldean, Munarga eta Muruatik Billerle/Legutiano arteraiño, Ganboa alde guztietan eta Nafarroako mugan dagozan errietan, Olazugutiaren aldera”.

“Guzti au guretzat bizirik dagoan zerbait da, ez illik daukaguna, gugandik ber-berton eta ur-urrean ikusten doguna da eta. Toki-izenetan edo toponimian argi dakusgu egia au, izenok gure aurretikoengandik etorri eta euskeraz berba egiten dauskuen ezkerro. Orixe jazoten da Aiarako erririk geienetan, asi Ibaizabaldik edo Llanterotik Altuberaiño. Okendon eta Laudion euskerazkoak dira %85 lur-bazterren eta baserrien izenak. Aitatu dodan nire liburuan 10.773 toki-izen artu nebazan antziñako Aiara Lurraldekoak... Eta euskera toki-izenetan bizi dala gaur-gaurko gauzea da, ez ilda dagoan lehena”.

“Errialde bat osotzen dogun ustea be gaurkoa da, ez bitan zatiturik, bata euskalduna eta bestea erdalduna, bat bakarra baiño”.

“Urrengo au be egia da gure egunotan: Euskalerrikoak garrantz, euskera zaintzea, babestea eta indartzea geure bearkizuna dala, geure-geurea dan ondasun honetan geu be kide eta partededun garalako. Gura daben arabar eta aiarrar guztiak eurentzako edo seme-alabentzako aurretikoen euskera bir-irabazteko eskubidea dauke. Eta berau egiten da Aiaran inor ez inork beartu barik, bestetara dala aditzen emoten dan arren, politikazko pentsaera guztien gainetik”.

“Zein da gaurko izatea? Arabako geiena erdalduna dala? Urrengo au be orain-oraingoa da, eta garrantzizkoagoa, gainera: errialde onetako (Arabako) %75-80 bizilagunek, eta aiarrak batez be, euren seme-alabek euskera ikasi dagien nai dabela. Euskera barrero indar-azotea indarkeriazko ekintza dala

diñoen orreek, arabar geienak euskeraren alde dagozala zergaitik ez dabe ikusten?

“Auxe da gure etorkizunerako itxaropen aundi-aundia. eta gurari au ez da bertokoak garanona bakarrik, erbesteko etorkinen artean geroago eta geiagok orixe nai dabe. Urte batzuk gure artea egin dituenak batez be, gorputz eta rima guztiz nai dabe gizartea euskaldun izan daiten, bai eurentzat eta bai euren seme-alabentzat, etorkizun daukagun geroko erriaren herbakuntza euskera izango dalakotan”.

“Euskeraren ikaste/irakaste au askatasun guztizkoan egiten da, ez goitik beera indarrez ezarririk... Gutariko bakotxak eta erriak orixe eskatzen dogulako, euskera barrero biztu daiten guztiok aalegin egiten dogulako, geienok bide orixe onartzen dogulako, orixe izan da, bada, gure erri onen ezaugarria, eta au lurbira guztiko ikastunek eta jakitunek egiatzat izan dabe”.

“Xeetasunok zeaztuz, 1994-1995 ikasturterako, auxe da Aiara aranean daukagun neskato-mutikoen zerrenda.

A ereduan, ikasgaia bat euskeraz eta besteak gazteleraz, kopurua auxe da: 847 ikasle, au da, %23,3

B ereduan, ikasgaiak euskeraz eta erderaz, 1996 ikasle, %51,9.

D ereduan, irakaskuntza guztia euskeraz, 972 ikasle, %25,6, ots 482 Laudion, eta 490 Amurrion” (ZER, 1995, iraila).

=====

Gure gunotan euskalduna dan udalerri bakarra, Arabako herrialde osoari gagokiozala, Aramaio da, eta adituek dirauskue-
nez, Euskalherri guztiko —Hegoaldeko zein Iparraldeko- udale-
rrietatik euskaraz gehien mintzatzen dana: Aramaio, %84,94
hiztunakaz. Bederatzi auzo/elizate daukoz eta bederatziretan
dakusgu bizi-bizirik gure berbetea.

Herri hau Arabaren goialdeko edo iparraldeko mustur-mus-
turrean dago, Gipuzkoaren eta Bizkaiaren bitartean ziri baten

antzera sartzen dalarik, eta mendiz inguratua, eta Gasteiz inguruko lautadatik urruntxo eta bazter egiten dala. Horrexegatik, beharbada, gorde dau gure berbakuntza.

Orain ogetamar/berrogei urte inguru Legutiano/Billarreal euskalduna zan zati aundi bat behintzat (%40-50). Harrezkeroko barririk ez daukat, baina euskaldungoa behera etorri dalakoaren eretxia daukat.

1965 garren urtea, neuk egin neban joan-etorritxo bat inguruko herrietatik, euskeraren egoera zelakoa zan jakiteko. Elosu deritxan herritxoan — urtegiaren ondo-ondoan dago bera, eta urak etxe batzuen barrenak miazten dautsoz — herri beratan jaio eta beti bizi izan zan gizon zaharkote-lodikote bat aurkitu neban eta beragaz berbetaldi hauxe izan:

- *“Zer? Elosun bizi eta euskeraz be badakizu, ala?”*
- *Nik bai, behintzat.*
- *Etzara, baiña, jaiotzez bertakoa izango.*
- *Bai, bai, ni ementxe jaio nintzan eta ementxe bizi izan naz beti.*
- *Pozgarri jat benetan zure erantzuna. Etorri be, inguru oneetan euskera zelan ete dagoan jakiten etorri naz.*
- *Euskera, euskera! Txarto joaku, guztiz txarto!*
- *Emongo zeunskit, mesedez, zure izena?*
- *Bai pozik be, Agapito Biteri dozuz nire izen-apelliduak.*
- *Zenbat familia zagoze Elosun?*
- *Guztiz, ogeitabi gara orain, urtegi au egin ebenean, or beko etxe batzuk urak artu zituan eta.*
- *eta euskaldunak zenbat?*
- *Berton jaiokoetatik neu bakarrik. Beste euskaldun bi be badira, baiña, kanpotik etorrikoak dira.*
- *Zure ume aroan danak eskeraz egingo eben, ezta?*

- *Ni txikia nintzanean, euskera besterik ez genkian. Ez bakarrik Elosu, gainera, Zestafe, Ollerias, Nafarrate, Urrunaga eta Billarreal euskaldun uts-utsak zenduzan. Urbiñan gitxiago egiten zan orduan be.*
- *Eta orain?*
- *Orain Zestafen banaka batzuk badagoz. Nafarraten iru etxe gelditu ziran gerratean, beste guztiak erre egin ziralako, eta irurak dira euskaldunak. Olleriasen bat edo beste izan leiteke.*

Inguruan dagoen erririk euskaldunena Urrunaga dozu. Hogei familia bizi dira gaur. Nagusiak ondo dakie euskeraz eta euren artean ala egiten dabe. Gazteak ez, baiña, jakin be ez dakie-ta.

- *Urbiñan ba ete da euskaldunik?*
- *Bertan jaio diranetatik bi bakarrik dagoz gaur.*
- *Eta euskera biztuten eta indartuten ez ete da sekula iñor aalegindu?*
- *Bai, gerra aurretik abade bat izan zan Nafarreten ainbat lan egin ebana, eta aren izena D.Txomin Jaka-Kortajarena. Abade jaun onek makiña bat bear egin eban umetxoai euskera irakasten. Gero, badakizu, gerrea etorri zan, bai? eta kitto!*
- *Billarrealgo barririk ez dozu izango, ezta?*
- *Billarrealen asko ezagutzen dodaz euskaldun garbiak, baiña urteetan aurrera dozanak. Leengo egun baten jardun neban, jardun, berbetan gauza oneetaz ango abade dan D. Rokegaz. Abade onek esan eustanez, euskaldun eta erdaldun familiak erdiz-erdi ei dagoz. Antxe, neure aurrean, berrogetamarretik gora kontau ebazan gurasoak behintzat euskeraz ekien etxeak.*
- *Eta gazteen artean?*

- *Gazteen artean txarto doatzu oso. Kalean erderean besterik ez da entzuten. Euskaldunak baztertuta, kikilduta legez dozuz* ("Euskera Araban" izeneko artikulua, Donostiako "Zeruko Argia" aldizkarian argitaratua, 1965, irailak 19, 12 orr.)

Berbaldi honetan nahiko xehetasun agiri da Legutiano/Billarreal eta inguruko herritxoetan euskera, orain hogetamar urte, gutxi gora-behera, zein egoeratan egoan jakiteko.

=====

Mende honen azken aldi honetan euskaldunen kopurua gorantza doala Araban, dirauskue adituek.

1981 garren urtean, 9.693 euskeradun ei ziran Araban, hau da, jendetzaren %3,88.

1991 garren urtean, ostera, 22.995 hiztun ei ziran, hots, %8,60

Arabako Errioxan elebitasuna geroago eta gorago ei doakigu hainbat herritan.

Arabako euskeraren gehitze eta goratze hau ez da eskualde guztietan era bardinean mamintzen, leku batzuetan biziago, ugariago eta azkarrago beste bazuetan baino.

Honelako aldakuntza gehien eta azkarren datorkigun gunea Arabako Lautada ei da, Gasteiz barruan dogula. 12.233 euskaldunetatik 16.080 hiztunetara igo eban 1991 garrenean.

Gasteizko "Olabide" ikastola 1963 garrenean eregi zan, eta 1979 urteaz gero elebidun herri-ikastolak ugaritu egin dira, adibidez, Assa (Lapuebla de Labarka), eta "Ikasbidea" (Durana).

Beste albiste hau be gogoan hartzekoa da: 17.720 euskal hiztun (Arabako euskaldunetatik %77) uri edo herri jendetsuetan bizi dira, eta baserritan bizi diranak, barriz, 5.275 ei dira, hau da %23 soilik. Honek hauxe darakusku: Arabako euskaldungoa gehiena uritarra dala, ez baserritarra.

Arabako euskeraren mendeetako ibilbidea laburbilduz, honelantxe dino Intxaustik: “*Arabako euskaldungoak gora-behera haundiak ezagutu ditu mendeetan: batzutan gora, bestetan atzera. nabaria izan da, alde batetik, euskaldun arabarren dinamikotasuna, eta bestetik, Antzinatean, Erdi Aro osoan eta Modernuko lehen mendeetan erakutsi zuten haiek beren eutsindarra*” (27 orr.).

Etorkinari buruz, barriz, itxaropentsu hitz dagigu: “*III milakadaren atarian eta Europara goazen honetan, hizkuntzaren altxor zabarra aspaldidanik baino biziago du bere baitan Arabak, eta ez iparraldeko mendialdeetan bakarrik, baita Lautadan eta Errioxan ere, herrixketan bezela hiriburuan ere. Arabaren modernutasunean txertaturik dago, dagoeneko, bertoko euskera, eta herritar gebienen borondatearen gain eraiki abal izango da espero den etorkizun hobea. Landazuri historilari arabar handiaren ametsak egi bihur litezke, bi mende geroago*” (27. orr.).

Euskara landu daben arabarrak

Betolaza (Joan Pérez, -1600).

Errioxako Ozkabarten jaiotako erlijioso honek Kalagurriko eleizbarrutiko goitzak aginduta *Doctrina Christiana en Romanze y Basquenze* idatzi eban (Bilbon, 1596). Erdarazko dotrina baten euskarako laburpena da. Ezagutzen dan euskarako dotrinarik zaharrena dogu. Mendebaleko euskalkian idatzia.

Joan Bautista Gamiz (Sabando, 1696 - Bologne, 1773).

Arabar jesuita hau Iruñean bizi izan zan luzaroan eta bertan idatzi ebazan: *Euscaraz gaiztoetan; Oinecochoa; Veste bat, beste tumucho bat* eta *Vestearendako...*

Pedro Inazio Barrutia (Aramaio, 1682-1759).

Arrasaten/Mondaronen eskribau ospetsu izan zala dinoe ikerlariak. Herri horretantxe bizi zala idatzi ebala dirudi liburu-rik entzutetsuena: “*Gabonetako ikusikizuna / Acto de noche-*

buena” deritzana. Horixe ei da euskeraz eginiko lehenengo antzerki idatzia, eta eretxi-emoileek goi-goian ipinten dabe, bai euskeraren aldetik, eta baita liburuaren erakuntzaren aldetik be.

Jose Pedro Ulibarri eta Galindez (Okendo, 1775-1847)

Euskaldun arabar hau dala eta, honan dino Federiko Barrenengoak: “*Ulibarriko Galindez Jose Paulo Okendo errikoa izan zan, eta bizi Ahandon (Bilbon) bizi izan zan. Ogibidez, errementaria, eta euskerazko arloan gizon ospetsua.*

Garai hareetako idazleakaz zuzen-zuzenean eta eskutizen bidez artu-emon bero-berotan bizi izan zan. Gaiñera, euskerrari beronen eskubideak biurtzearen aldekoa izan zan, eta ori bere garaian eta etorkizunerako be bai, au da, oraingo ikastolen aurreralaria.

Urrengo au be berak egin eban: euskera zaintzen eta indartzen lan-da-lan egingo eban eta 24 kide izango ebazan erakunde bat sortzeko asmoa agertu eban, gaur Euskaltzaindia deitzen dogunarena.

Azkenik, Gernikako Batzarre nagusietan, Arandoko ordezkaria zanez, aurreko ekitaldiaren laburpen bat euskeraz idatzi zeitela lortu eban.

Beraren atsegiñik aundiena auxe izan zan: batak besteari idazten dautsaguzan eskutilzetan, norbere eta erriko agirietan, idazki guztietan euskera erabiltzea” (ZER, 1995, iraila).

1826 garren urtean gutun bat egin eutsan A. Juan Mateo Zabala (1777-1840) euskal idazle eta olerkari frantziskotar ospetsuari, Bizkaiko Forua euskerara itzul egiala eskatuz.

Aita Juan Mateo Zabalaren erantzuna nahiko zorrotza eta garratza izan zan: “*Zer? burua galanto ausi liburua egin eziñik, urtu orreek argitara ekarteko, or, ogeta amar edo berrogei mila errial, eta gero, saguak, zedenak eta autsak yateko, edo dendetan tabakoa eta piperra salduetzeko... Ez nago ni orretarako... Nigaitik forua erderaz geldituko da”.*

Uribarri arabarraren “Gutun-liburua” izenekoa Arabako Aldundiak argitaratu eban 1975 garren urtean, okendotar aintzatsuaren omenez. Autorearen idatzizko hartu-emonak, literatur-idazkunak eta abar ei datoz bertan. Liburuaren edukiagaitik, arabarrek euskal-kultur-harrobiari egindako ekarririk bitxienetako bat ei da, Intxausti jaunak autor dagigunez (24. orr.).

Gabiren Jauregi Uribarren (Aramaio, 1895-1945)

Aita Gabirel Jauregi karmeldarra “Karmengo Argia” aldizkarian hasi zan idazten, eta urteetan idazlerik oparoenetarikoa izan zan.

Haren idazkunik entzutetsuenak, baina, “PISIA” eta “KIMIA” izan dira, eta liburu biok emon dautse aipurik eta izenik zabalduena.

R. Olabide (Gasteiz, 1869-1942)

Josulaguna izan zan, eta euskera umetan ez, adin haunditan ikasi eban. Halan eta guzti be, harrigarriro menderatu eban hizkuntza.

Bera izan zan lehenengo arabar euskaltzain oso, eta Euskaltzaindiaren sortzailetariko bat, 1919 garren urtean.

Berari zor dautsagu Akademiaren lehenengo aurategigaiia.

Hainbat liburu idatzi zituan: “Giza-soña” (1917), “S.Inazioren Gogojardunak” euskeratu...

Baina haren lan erraldoia Biblia osoa euskeratzea izan zan: “Itun Berria” (1931), eta Itun Zar eta Berria” (1958).

Ez darabilela herriko euskera ulerterreza salatzen dautsoe batzuk. Eta hala izango da, euskera batez be liburuetan ikasi ebalako, eta ez herrian. Baina, hainbat alderditan, batez be, euskerazko aditz sintetikoa erabilketan, haren “Itun Zar eta Berria” harrobi agortezina da edonorenzat euskera ikasteko.

Andoni Urrestarazu (Umandi; 1994n ila).

Beronen euskal gramatika gerrostean askorentzat egiazko euskal eskola izan zan.

Arabako euskalkiaren hondakinik bai?

Badirudi guztiz galdurik dogun euskalkiren bat berba egiten zala Araban anzinateko urteetan.

Gorago aitatu dogun Landuchiok 1562 garren urtean moldatu eban DICTIONARIUM LINGUAE CANTABRICAЕ hiztegirako Araban egiten zan euskalki haretatik jaso ei zituan hitzik gehienak, irakurri dot nonbaiten.

Euskalki haren hondarrik edo aztarnarik gelditzen ete da gaur?

Batzuek baietz dinoe, eta hauxe izango litzateke.

Badakigu Hegoaldeko euskalkietan hiru aditz-izen darabilguzana:

- Etxea egunero garbitzen degu/dugu (gipuzkoeraz/nafarreraz).
- “ “ garbituten dogu (bizkaieraz).
- “ “ garbiketan “ (Leintz haranean: Gatza, Eskoriatza, Aratxabaleta, Arrasate)

“Garbiketan” lango aditz-izenak hainbat eta hainbat erabiltzen dira gure egunotan be Leintz ibarrean: *zatiketan* (zaitzen/zatituten), *txikiketan* (txikitzen/txikituten), *apurketan* (apurtzen/apurtuten), *galdaketan* eta abar, eta abar.

Nik dakidala, Leintz edo Leintze aldean izan ezik, ez Gipuzkoan, ez Bizkaian, ez Nafarroan... ezda entzuten KETAN/KETA aditz-izen bitxi hori. Ez da bizkaiera, ezda gipuzkoera, ezda nafarrera... beste euskalki batekoa da...

- KETAN aditz-izen horixe dala Araban antzinatean egiten zan euskalki zahar haren kondarra entzun edo irakurri izan dot nonbaiten...

Egia ete?

Ala, Azkue handiak esango leukenez, “agian, bai, agian, ez, txoriak pikuan ezer ez”, errepikatu beharko?

Batek badaki!!!

Pedro Pujana arabarrak